

Baliabideen kudeaketa, eGELAn (Moodle 2.7)

Irakasleentzako eskuliburua

2. bertsioa (2016/05/30)

Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Campus Birtualak landu du.

Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.



Edukien aurkibidea

2.7 bertsioak dakartzen aldaketak.....	3
Eskuliburu honetan azaltzen diren aldaketa garrantzitsuenak	3
Nabarmentzeko moduko aldaketak.....	3
Ikastaroaren orri nagusiko elementuak editatzea	4
Ikastaro batean baliabideak argitaratzea	6
Drag and drop (herrestan eraman eta askatu) funtzioarekin, baliabideak gehitzea	6
Fitxategiak argitaratzea, jarduera-hautatzailea erabilia.....	8
Baliabide bat argitaratzeko pausoak.....	10
Ordenagailutik fitxategi bat argitaratzea (Igo fitxategia).....	10
Karpeta bat argitaratzea.....	14
Fitxategi-hautatzailearen aukerak	15
Baliabide eta jarduerak beste ikastaro batetik inportatu.....	¡Error! Marcador no definido.
Baliabideak sortzea: etiketak, orriak eta liburuak.....	22
Editorea	22
Etiketak.....	24
Orriak.....	24
Liburuak.....	24

2.7 bertsioak dakartzan aldaketak

- Editorea: Bertsio honetan aurkitzen dugun aldaketa nagusia editoreari dagokiona da, zeinak aukera barra zabaldu eta ezkutatzea baimentzen duen. Erabilpen batzuetan aldaketa txiki batzuk badira. **(ikus 22 eta 23 orriak)**

Eskuliburu honetan azaltzen diren aldaketa garrantzitsuenak


- Jarduerak bikoiztu **(5 orrian 6. puntua)**
- Jarduera eta baliabideak inportatu. Ez da bertsio aldaketak dakarren aldaketa baina plataformaren konfigurazioan gehitzen den aldaketa bat da **(ikus 19 eta 20 orriak)**.

Nabarmentzeko moduko aldaketak (2.5 bertsiotik datozenak)

- Ikastaroaren **orri nagusian** argitaratutako fitxategien, zereginen edo bestelako elementu batzuen edizioa (esaterako, elementu baten izena edo kokatzen den tokia aldatzea) arinagoa eta samurragoa da orain **(ikusi 4. eta 5. orriak)**.
- Ikastaroan **fitxategiak** argitaratu daitezke, **"drag and drop"** metodoa erabilita. Alegia, fitxategia gure ordenagailuko karpeta batetik herrestan eraman eta askatuta (nabigatzailearen bateragarritasuna egiaztatu behar da) **(ikusi 6. eta 7. orriak)**.
- "Baliabideak" eta "Jarduerak" gehitzeko ohiko goitibeherako menuak ateratako elementu batek ordezkatu ditu, aukera hauek guztiak metatuta eta berrantolatuta daudela. Hain justu, "Jarduera-hautatzailea" elementuak **(ikusi 8. orritik 14.era)**.
- Ikastaro bati dagozkion fitxategien direktorioak dagoeneko ezin dira ordenatu; izan ere, fitxategiak ikastaroan argitaratzen direnean, aplikazioak karpeten barne-antolamendua finkatzen du **(ikusi 16. eta 17. orriak)**
- Halakorik izan ezean, erabiltzaile bakoitzak "Fitxategi pribatuak" izeneko karpeta bat izango du, eta izena emanda daukan ikastaro guztietatik sartu ahal izango da bertara **(ikusi 15. orria)**


Ikastaroaren orri nagusiko elementuak editatzea

Ikastaro barnean edizio-aukerak aktibatzeke, beharrezkoa da "Aktibatu edizioa" botoia sakatzea (Ikusi 1. irudia: Aktibatu edizioa).



1. irudia: Aktibatu edizioa

Ikastaroa edizio-moduan dagoenean, bertan txertatutako baliabide bakoitzak aukera sorta bat izango du atxikia, bere ezarpenak finkatzeko (Ikus 2. irudia: Orri nagusiko elementuen ediziorako ikonoak)



2. irudia: Orri nagusiko elementuen ediziorako ikonoak



0) Mugitu: Goitik beherako desplazamendua, ikastaroaren azalean, elementuak berrantolatzeko.



Aukera hau ez dabil ondo bertsio zaharrak dituzten nabigatzaileetan; esaterako, Internet Explorer 7, 8 eta 9ekin. Horixe da nabigatzaile hauek Moodle 2.7-ekin bateragarri izateko duten ahultasunetako bat, eragiketa hau egitea oso zaila baita, eta ez baitago egiteko beste modurik. Ondorioz, beste nabigatzaile bat erabiltzea gomendatzen da; esate baterako, Firefox edo Internet Explorer-en bertsio modernoago bat.



1) Izenaren edizio bizkorra: Izena aldatzeko ez da beharrezkoa ezarpenen formulariora sartzea. Nahikoa da ikono honi eman, eta Enter sakatuta, aldaketak egiaztatzea.



2) Ezarpenak editatu: Ikono honi esker, elementu bakoitzaren "Ezarpenak editatu" formulariora sartu ahal izango gara.



3) Eskuinera mugitu: Elementua eskuinerantz mugitu, gainerako elementuekiko koska-efektua sortzeko.



4) Elementua erakutsi /ezkutatu.



5) Baliabidea bikoiztu, konfigurazio ezarpenak mantenduz. Jardueri dagokionez, erabiltzaileen ekarpenak ez dira gordetzen.



6) Baliabidean edo jardueran rola esleitu. Honekin, ikasle bati "Irakaslea, editatzeko baimenik gabe" rola eman diezaiokegu, eta ondorioz, jarduera hau kalifikatu ahal izango da. Ez erabiltzea gomendatzen da, non eta ez dugun ezin hobeto ezagutzen aldaketa horren emaitza zein izango den.




7) Ezabatu: Ikono honek elementu bat ezabatzeko aukera berresteko orri batera garamatza.


Ikastaro batean baliabideak argitaratzea

Testu honen hurrengo ataletan, bertsio berri honetako fitxategien kudeaketari buruzko informazio zehaztua eskaintzen da.

Drag and drop (herrestan eraman eta askatu) funtzioarekin, baliabideak gehitzea

Moodle 2.7-ak aukera ematen du "drag and drop" (herrestan eraman eta askatu) bidez ikastaroan fitxategiak kargatzeko. Edizio-modua aktibatuta dagoenean, gure ordenagailuko tokiko karpetetan fitxategi bat aukeratu ahal izango da, eta ikastaroaren orri nagusiraino herrestan eraman, han kargatzeko. Moodlek fitxategiaren helburu izango den tokia erakutsiko du lauki batean.


 Nabigatzailearen bertsio zahar bat erabiltzen denean; esate baterako, **Internet Explorer 10 baino lehenagoko bertsioa**, jokamolde hori ez dago eskuragarri. Internet Explorer-en bertsioa ezagutzeko, 'Laguntza > Internet Explorer-i buruz' goiko menuan egin beharko da kontsulta.




3. Irudia: Irudia herrestan eraman eta askatu

- Fitxategi bat gehitzeko, fitxategia herrestan eraman, eta agertzea nahi dugun ikastaroaren atalean askatu beharko dugu (Ikusi 3. irudia: Fitxategia herrestan eraman eta askatu).
- Fitxategi-karpeta bat gehitzeko, karpeta konprimitu behar da, eta gero, agertzea nahi dugun ikastaroaren atalera herrestan eraman. Ateratzen den elkarrizketa-koadroan, berriz, "Deskonprimatu fitxategia eta sortu karpeta" jarri beharko dugu. Ondoren, igotzeko botoian klik egin. (Ikusi 4. irudia: Konprimitutako .zip karpeta herrestan eraman eta askatu). Konprimitutako karpeta askatzean, hiru aukera dituen koadro bat aterako zaigu (Ikusi 5. irudia: .zip fitxategia kargatzeko aukerak).
 - 1) Deskonprimatu fitxategia eta sortu karpeta: karpeta bat sortuko da, edukia bistaratzeko aukerarik gabe; beste aukera batzuentzat, ezinbestekoa izango da bere ezarpenak editatzea.
 - 2 eta 3) Sortu fitxategia izeneko baliabidea: .zip fitxategi bat igotzean, fitxategi hori formatu konprimituan aurkeztuko duen bigarren aukera hautatu ahal izango dugu. Beste luzapen bat duen fitxategi batean igotzen badugu; esate baterako, .rar (7. irudiko 3. kasua), plataformak ez du ezagutuko luzapena, eta ikono orokor batekin erakutsiko du fitxategia.

- Gehitu SCORM pakete bat: Aukera honek jarduera bati egiten dio erreferentzia; izan ere, auto-ebaluazioak ditu. Aukera hau hautatzeko, ezinbestekoa da SCORM formatu espezifiko zip bat erabiltzea (http://docs.moodle.org/all/es/Módulo_de_SCORM).



4. irudia: Konprimatutako .zip karpeta herrestan eraman eta askatu




5. irudia: Zip fitxategia kargatzeko aukerak


Fitxategiak argitaratzea, jarduera-hautatzailea erabilia

Atal hau, hain justu, kanpoko aplikazioekin sortutako fitxategiak argitaratzeko da; adibidez, testu-prozesadore batekin sortutako PDF fitxategi bat.

"Jarduera-hautatzailea" zabaltzeko, "Gehitu jarduera edo baliabidea" esteka sakatu beharko da, ikastaroaren atal bakoitzaren eskuin aldeko behealdean dagoena. Menu bat azalduko zaigu, Jardueri eta Baliabideei buruzko aukerekin (Ikusi 6. irudia: Zabaltu jarduera-hautatzailea).




6. irudia: Zabaltu jarduera-hautatzailea



7. irudia: Desaktibatu jarduera-hautatzailea

Eskema klasikora itzuli nahi izanez gero, "Kudeaketa" paneletik desaktibatu daiteke "Jarduera-hautatzailea", baina soilik edizioa aktibatuta dagoenean (Ikusi 7. irudia: Desaktibatu jarduera-hautatzailea).

Fitxategi bat argitaratzeko prozesuan; alde batetik, fitxategi mota aukeratu beharko dugu, eta bestetik, fitxategi horren jatorria, 8. irudian ikus dezakegun moduan: Baliabide motak (ezk.) eta Fitxategi-hautatzaileko aukerak (esk.).



8. irudia: Baliabide motak eta Fitxategi-hautatzaileko aukerak

Baliabide motak

- **Fitxategia:** Era guztietako fitxategiak. Moodlek ezagutzen dituen luzapena duten fitxategiak automatikoki aurkeztuko dira, ikono bereizgarria dutela.
- **Karpeta:** Bistaratzeko hainbat aukera dituzten karpetak argitaratu ahal izango dira (beste orri batean zabaltzen den elementu bakar bat, karpeta-egitura edo zuhaitz osoa).
- **IMS eduki-paketea:** IMS eduki-paketeak, hain zuzen, unitate didaktiko bat osatzen duten fitxategiak metatzeko modu estandarra dira. Pakete bat, horrenbestez, XML fitxategia duen karpeta da, bere egitura zehaztuta daukana. Nabigazio-zuhaitz espezifiko bat sortuko da, IMS eduki-paketearen barne-antolamenduarekin bat datorrena.

Fitxategi-hautatzaileko aukerak

Hauek dira ikastaroan argitaratzeko fitxategi bat hautatzeko dauden aukerak:

- **Zerbitzariko fitxategiak:** Ikastaroko fitxategien direktorioan dauden fitxategiak dira. Ez da gomendatutako aukera. Informazio gehiago, dagokion atalean.
- **Azken fitxategiak:** Sarbidea duen ikastaro guztietara igotako azken 50 fitxategiak erakusten ditu.
- **Igo fitxategia:** Ordenagailuko direktorioetatik fitxategi bat aukeratu daiteke (edo hala dagokionean, batzuk; esate baterako, karpeta batean daudenak).
- **URLak jaisteko gailua:** Fitxategia eskuragarri dagoen Interneteko helbide baten esteka txertatuko da. Kontuan izan beharko da helbide horretara sartzeko aldeztuak diren identifikatzailea (*login*) beharrekoa den.

- **Fitxategi pribatuak:** Ikastaro guztietan daude eskuragarri, eta "Nire fitxategi pribatuak" karpeta dauden fitxategi guztiak erakusten ditu. Karpeta honetan sartu eta ezarpenak ezarri ahal izateko, profil pertsonaleko orrialdera joan behar da (Nabigazio-panela > Nire profila > Nire fitxategi pribatuak).

Baliabide bat argitaratzeko pausoak

Hurrengo atalean, gure ordenagailutik fitxategi bat argitaratzeko eman beharreko pausoen azalpen sekuentziala egingo dugu (Igo fitxategia). Hurrengo azpiataletan, beste baliabide eta Fitxategi-hautatzaileko beste aukera batzuetarako aukera espezifikoak azaltzen dira.

Ordenagailutik fitxategi bat argitaratzea (Igo fitxategia)

Fitxategi bat argitaratzen hasteko... 1) Ikastaroaren edizioa aktibatuko dugu 2) Nahi dugun ikastaroaren bloketik, "Gehitu jarduera edo baliabidea" sakatuko dugu 3) "Fitxategia" aukeratuko dugu eta 4) "Gehitu" sakatuko dugu.


OHARRA: arestian azaldu bezalaxe, fitxategi bat argitaratzeko, gure ordenagailuko karpeta batetik fitxategia herrestan eraman eta askatu dezakegu (Ikusi 3. irudia: Irudia herrestan eraman eta askatu).

Irakasle batek ikastaro batean gauzatzen duen ekintza ohikoenetako bat argitaratzea da; alegia, fitxategiak "igotzea", ikasleek kontsultatu eta jaitsi ditzaten. Fitxategi mota ohikoenak testu-fitxategiak badira ere, formatu ugari onartzen ditu plataformak.

Ekintza hori gauzatu ostean, plataformak formulario batera eramango gaitu; bertan, nahi ditugun ezarpenak aukeratu beharko ditugu, eta argitaratu behar den fitxategia ere hautatu beharko dugu. Hona hemen, formulario horretako atal bakoitzean ditugun aukerak.

Orokorra


Oraintxe ikusiko dugun bezala (Ikusi 9. irudia: Fitxategiaren datu orokorrak), atal honek derrigorrezko bi eremu ditu: Izena eta Deskribapena. Lehenagoko bertsioekin alderatuta, berrikuntzak biak ere: 1) "Deskribapena" eremua eskatuko zaigu 2) "Erakutsi deskribapena ikastaroaren orrian" laukia markatzean; horrek ikastaroari buruzko informazio osagarria gehitzeko aukera emango dio irakasleari.



9. irudia: Fitxategiaren datu orokorrak

Jokamolde hau ikus dezakegu honako irudi honetan (Ikusi 10. irudia: Fitxategien ikonoak). "Sistemak ezagutzen ez duen luzapeneko fitxategia da hau" esaldia, hain zuzen, aurreko fitxategiaren deskribapenari dagokio. Gainera, irudian ikus daiteke plataformak

ezagutzen duen luzapena duten fitxategiak identifikatzen dituen ikono batekin ageri direla; bestelakoek, berriz, ikono orokor bat izango dute alboan.



10. irudia: Fitxategien ikonoak

Edukia

Atal honetan, ordenagailuko direktorioetatik fitxategi bat (edo hala dagokionean, batzuk; esate baterako, karpeta batean daudenak) aukeratzeko eremua ageri zaigu. Argitaratutako fitxategien gehieneko tamaina eremu honetan adierazita egongo da (ikus 11. irudian nabarmendutako koadroa). Hori izango da baimendutako gehieneko balioa, baina irakasleek aldatzeko aukera izango dute ("Ikastaroaren kudeaketa" > "Ezarpenak editatu" > "Fitxategiak eta igoerak").




11. irudia: Fitxategien ikonoak

Honako zerrenda honek, bestalde, "Edukia" atalean bildutako fitxategietarako formulario-eremuaren guneean fitxategia igozteko dauden aukerak erakutsiko dizkigu:

1. "Gehitu" sakatu, eta Fitxategi-hautatzailean sartu.
2. Eremu barnean klik egin, Fitxategi-hautatzailean sartzeko.
3. Fitxategi bat herrestan eraman eta askatu, eremu barnean. Aukera hau hautatuz gero, ez da beharrezkoa Fitxategi-hautatzailean sartzea.
4. Direktorio bat sortu. Puntu honetan ez da gomendagarria, ez baita ikastaroan islatzen eta ikastaroko direktorioen antolaera aplikazioak berak finkatzen du.


Aurreko eremuan 1 eta 2 aukerak hautatuz gero, Fitxategi-hautatzailea irekiko zaigu, eta bertan, fitxategia aukeratu hautatu beharko dugu. 12. irudiak, berriz, Fitxategi-hautatzaileak ematen dizkigun aukerak erakutsiko dizkigu, "Igo fitxategia" aukera hautatuta dagoenean.



12. irudia: Fitxategi-hautatzaileak ematen dizkigun aukerak, "Igo fitxategia" aukerarekin.

Fitxategi-hautatzailearen aukerak:

1. **Eranskina:** Gure ordenagailuko karpetetara sartzeko botoia.
2. **Gorde honela:** Orri nagusian ageri den fitxategiaren izena aldatzeko aukera ematen du. Aldatu ezean, fitxategiaren izena azalduko zaigu.
3. **Egilea:** Berez, fitxategia argitaratzen duen erabiltzailearen izen-abizenak erakutsiko dizkigu.
4. **Aukera ezazu lizentzia:** Argitaratzen den fitxategi/obraren lizentzia mota. Egile batek Creative Commons erako lizentzia ireki bat erabiltzen duenean, borondatez lagako ditu berari dagozkion kopia- eta banaketa-eskubide batzuk. Berez, formulario honetan erakutsiko den lizentzia erabiltzaileak erabilitako azkena izango da. Alabaina, Moodleren ekimen hau, oraingoz, praktikari begira, aplikazio praktikorik gabeko barne-katalogazioa da; izan ere, informazio hori ez da argitaratuko ikastaroan. Irakasle-rola duten erabiltzaileek baino ezingo dute sartu eta aldatu informazio hau, ikastaroan bertan, "Fitxategiaren Kudeaketa" aukerako "Ezarpenak editatu" formularioaren "Edukia" eremuko fitxategiaren ikonoan klik eginda (Ikusi 13. irudia: Fitxategi baten lizentziari buruzko informazioa).



13. irudia: Fitxategi baten lizentziari buruzko informazioa



Ikastaroan fitxategi bat kargatzeko prozesuak iraun bitartean, erabiltzaileak ez du aukeratuko bere antolamendu-irizpideen arabera direktorio bat: plataformak berak direktoriotan antolatzen ditu fitxategiak, eta ikastaroaren orri nagusian antolatuta dauden moduan antolatzen ditu direktorio horiek.


Itxura

"Itxura" atalean, zenbait aukera ageri dira.

Ondorengo irudian erakutsitakoetatik lehenak, "Erakutsi" aukerak, fitxategia aurkezteko hainbat modu eskaintzen ditu.

Erakutsi

Parametro honek fitxategiaren jokamoldea finkatzen du, erabiltzaileak haren gainean klik egiten duenean. Emaitzak era askotakoak izan daitezke, hainbat faktoreren arabera (gailua, nabigatzailea, fitxategiaren luzapena...), baina hona hemen gomendio batzuk:



14. irudia: "Erakutsi", Fitxategi bat bistaratzeko aukerak

- PDF fitxategiak badira, "Automatikoa" aukerak erabiltzailearen nabigatzaileak finkatutako lehentasunak bideratuko ditu. Normalean, nabigatzailearen erlantz berri batean irekiko da.
- Word edo Powerpoint formatuetako fitxategiei dagokienez, berriz, "Jaistera behartu" aukerak saihestuko du nabigatzaileak dokumentua alferrik aurkeztea, soilik berorren kodea erakutsita. Gomendio hau baliagarria da nabigatzailearen bitartez behar bezala erakutsi ezin den beste zeinahi fitxategirentzat.
- Irudiak oso zabalak ez badira, "Enbotatu" parametroak edukiaren arloan erakutsiko ditu. Irudiak zabalagoak badira, berriz, komenigarriagoa da "Zabaldtu" edo "Pop-up-ean" aukerak erabiltzea. Azken horrekin, leihoaren tamaina zehaztu ahal izango da (zabaldtu atal honen ezkutuko aukerak).

Erakutsi tamaina eta Erakutsi mota


Bi lauki horiek markatuz gero, fitxategiaren pisua eta mota erakutsi ahal izango dira (azken hori, baldin eta Moodlek ezagutzen badu). Ikusi 15. irudia: Fitxategiari buruzko hautazko informazioa.



15. irudia: Fitxategiari buruzko hautazko informazioa


Karpeta bat argitaratzea

Karpetei esker, dokumentu-multzoak erakutsi ahal izango dira. Karpeta baten ezarpenak editatzeko orrian, beste baliabideen antzeko eremuez gainera (izena edo deskribapena) "Edukia" izeneko atala dugu. Bertan, fitxategiak antolatzeko formulario-eremua dugu, eta baita horien bistaratzearen ezarpenak finkatzeko bi aukera ere. (Ikusi 16. irudia: Karpetaren edukiak antolatu).



16. irudia: Karpetaren edukiak antolatu

1. Azpikarpetak sortu, fitxategiak antolatzeko.
2. Bistaratzeko aukerak. Ikusi 17. irudia, horien emaitzari behatzeko.
3. Erakutsi azpikarpetak. Aurreko formularioaren elementuan "Erakutsi ikastaroaren orrian" aukera sakatuz gero, komenigarria da aukera hori ez markatzea.




17. irudia: Karpeta bat bistaratzeko aukerak

Fitxategi-hautatzailearen aukerak

"Ordenagailutik fitxategi bat argitaratu" atalean, "Fitxategi-hautatzaileko fitxategi bat igo" aukeratik fitxategi bat nola argitaratu ikusi dugu. Arestian esan bezala (ikusi "Fitxategiak argitaratzea, jarduera-hautatzailea erabilia" ataleko sarrera), ikastaro batean fitxategi bat argitaratzean, badira beste fitxategi-aukera batzuk, ikastaroan txertatuko ditugun fitxategiak aukeratzeko.

Nire fitxategi pribatuak


Fitxategi-aukera hau eGelako erabiltzaile guztientzat dago erabilgarri, dauden ikastaroa edo duten rola zeinahi delarik ere. Direktorio pertsonal horretako edukiak kudeatzeko, hemen sartu beharko da: Nire profila > Nire fitxategi pribatuak, "Nabigazioa" panelaren barnean (Ikusi 18. irudia: Nire fitxategi pribatuak).



18. irudia: Nire fitxategi pribatuak

1. "Nabigazioa" panelean, "Nire fitxategi pribatuak" aukerarako esteka dago.
2. Fitxategiak eta karpeta gehitzeko aukerak.
3. Direktorio honetako fitxategi guztiak karpeta konprimitu batean jaisteko esteka.
4. Erabiltzaileari baimendutako biltegitratze-kuotari eta fitxategi bakoitzaren gehieneko tamainari buruzko informazioa.

19. irudian erakusten den bezala, Fitxategi-hautatzaileko "Fitxategi pribatuak" aukeratik sartu daiteke direktorio horretara.




19. irudia: "Nire fitxategi pribatuak" direktoriotik fitxategi bat aukeratu

1. "Kudeatu" estekan klik eginez geroz, "Nire fitxategi pribatuak" direktoria sartuko gara (Ikusi 18. irudia).



"Nire fitxategi pribatuak" direktoriotik ikastaro batean argitaratzeko fitxategi bat aukeratzenean, bi aukeraren artean hautatu daiteke, 19. irudian ikus daitekeen bezala.



20. irudia: Fitxategi bat argitaratzea, "Nire fitxategi pribatuak" aukeratik


1. Fitxategiaren kopia egitea: kopia independente bat sortzen da, ikastaroan txertatuko dena.
2. Fitxategirako izengoitia / lasterbidea sortzea: ez da kopia berria sortzen; beraz, fitxategi hori eguneratuz gero, "Nire fitxategi pribatuak" karpetan bertsio berria kargatuta, bertsio berri hori automatikoki erakutsiko da fitxategia metodo horrekin lotu den ikastaro guztietan.

Zerbitzariko fitxategiak

Zerbitzariko fitxategiak ikastaroan argitaratu diren fitxategiak dira, "Nire fitxategi pribatuak" aukeratik lotutakoak izan ezik.



UPV/EHUn erabilitako Moodleren lehenagoko bertsioetan ez bezala, irakasle-rola duten erabiltzaileek ezin dituzte antolatu euren irizpideen arabera fitxategien direktorioetako edukiak; modu automatikoan antolatuko dira, ikastaroaren orri nagusian argitaratu diren ordenarekin bat etorrira.




21. irudia: Zerbitzariko fitxategiak

"Fitxategi-hautatzailean" "Zerbitzariko fitxategiak" aukeratzean, aplikazioak fitxategiak antolatu dituen aplikazioko direktorioak erakutsiko ditu (21. irudia: Zerbitzariko fitxategiak).

1. Laukian nabarmendutako aukerek direktorioko edukiak aurkezteko modua aldatzeko aukera ematen dute.

22. irudian ikus daitekeen bezala, ikastaroan argitaratutako fitxategiak modu automatikoan antolatzen dira ikastaroaren direktorioetan.



22. irudia: Zerbitzariko fitxategien barne-antolamendua, orri nagusiaren ordenarekin bat etorrira

1. Bistaratzeko aukeratzeko
2. Lauki hori, hain zuzen, ikastaroaren orri nagusiaren pantailaren itxura da, irudiaren gainean jarrita, "Zerbitzariko fitxategiko" direktorioak ikastaroaren orri nagusian argitaratutako elementuekin lotzeko.

3. Laukian nabarmendutako bi karpetak bat datoz "Ikastaroaren laburpena" eta "Ikastaroaren laburpenaren fitxategiak" aukeretan erabilitako irudiekin (Ikastaroari buruzko informazioa, ikastaroen zerrenden orrietan).
4. Irudiak "Zerbitzariko fitxategiko" bi karpeta erakusten ditu, gezien bidez ikastaroaren orri nagusian dagozkien elementuekin lotuta.

Azken fitxategiak

Sarbidea duen ikastaro guztietara igotako azken 50 fitxategiak erakusten ditu.

URLak jaisteko gailua

Aukera honek Interneteko helbide batean argitaratutako fitxategi baten kopia jaisteko eta argitaratzeko aukera ematen du.

Baliabide eta jarduerak beste ikastaro batetik inportatu

“Inportatu” aukerak, irakasle rola dugun beste ikastaro batetik jarduera edo baliabideak inportatzea baimentzen du. **Kudeaketa > Ikastaroaren kudeaketa > Inportatu** aukeratu, bilaketa egiteko formularioa zabalduko da

Hemengo datuak inportatzeko ikastaroa aurkitu:

Aukera ezazu ikastaro bat Ikastaroak denera: 2

	Ikastaroaren izen laburra	Ikastaroaren izen osoa
<input type="radio"/>	Prueba 1	Curso prueba 1
<input checked="" type="radio"/>	Froga 2	Frogatarako ikastaroa 2

23. irudia: Datuak inportatu nahi ditugun ikastaroa zehazteko gunea

Ondoren, inportatu nahi diren elementuei lotutako zein konfigurazio (filtroak adibidez,...) inportatu nahi den aukeratu beharko da. Aukera guztiak seinalatzea aholkatzen da.

1. Ikastaro-aukeraketa ▶ 2. Hasierako ezarpenak ▶ 3. Egituraren ezarpenak ▶ 4. Egiaztatu eta berrikusi
▶ 5. Egin inportazioa ▶ 6. Osatuta

Segurtasun-kopiaren ezarpenak

- Jarduerak barne ditu
- Blokeak barne ditu
- Iragazkiak barne ditu
- Egutegiko ekitaldiak barne ditu
- Galdera-bankua barne du

24. irudia: Hasierako ezarpenak


Hurrengo pausoa, inportatu beharreko elementuak zehaztea izango da, ondorengo irudian azaltzen den bezala:

1. Ikastaro-aukeraketa ► 2. Hasierako ezarpenak ► **3. Egituraren ezarpenak** ► 4. Egiaztatu eta berrikusi ►
5. Egin inportazioa ► 6. Osatuta


Barne du:


Aukeratu **Guztia(k) / Bat ere ez** (Erakutsi aukera-motak)

Gaia 0

News forum 

Gaia 1

Test inicial 

Tarea 1 

Aurrekoa Utzi **Hurrengoa**

25. irudia: Elementuak aukeratu

“Erakutsi aukera-motak” sakatuz gero, elementuak sailkatuta aurkezten ditu, adibidez, galdetegi guztiak. Ondoren, prozedura osatu eta, inportatutako elementuak kurtso berrian daudela baieztatu.




Imagen 26: Berrikuspena eta baieztapena





Imagen 27: Inportatutako elementuak ikastaro berrian

Baliabideak sortzea: etiketak, orriak eta liburuak

Dokumentu honen aurreko ataletan, kanpoko tresnekin sortutako fitxategiak argitaratzeko plataformak dituen tresnak azaldu ditugu (testu-dokumentuak, kalkulu-orriak, irudiak...). Hurrengo atalaren helburua, hain zuzen, edukiak sortzeko plataforman txertatutako tresnak azaltzea da. "Jarduera-hautatzailea" aukerako "Baliabideak" atalean, estekak, etiketak, orriak eta liburuak izango ditugu (Ikusi 29. orria: Sortu baliabideak, erabilgarri dauden motak).




29. irudia: Sortu baliabideak, erabilgarri dauden motak

Editorea


Plataforman baliabideak sortzeko tresna nagusia da editorea. Testua sortzeko eta formateatzeko aukera ematen du, eta kanpoko beste baliabide batzuk formateatutako testuan txertatzeko tresna ere bada; esaterako, irudiak, irudien bitartez aurkeztutako formulak, bideoak edo audio-fitxategiak. Editorea erabilgarri dago etiketak, orriak eta liburuak editatzeko eremuetan, eta jakina, baita testu aberastu bat txertatzeko modua duten tresna guztietan ere (foroak, zeregin-adierazpenak...).

Editorean erabilgarri dauden aukerak beste zeinahi testu-prozesadorearen antzekoak dira. Hona hemen interesgarriak izan daitezkeen aukera batzuen azalpenak (Ikusi 31. irudia: Editorearen aukeren zehaztasuna).



31. irudia: Editorearen aukeren zehaztasuna

1. Zabaldu/tolestu editore aukeren barra
2. Irudiak txertatu: Botoi hau sakatzean, hiru erlaitzeko elkarriketa-koadro bat irekitzen da. Lehenengo erlaitzean, "irudi bat bilatu edo kargatu" aukera aurkituko dugu. "Fitxategi-hautatzaileak" irekitzen du, "Baliabide-hautatzailearen" aukerei buruzko ataletan dagoeneko landutako aukera guztiekin. Atal honetan, beraz, bigarren erlaitzeko ("Itxura") aukerei erreparatuko diegu, 32. irudian ikus daitekeen bezala. 32. irudia: Irudiak txertatzeko koadroko "Itxura" erlaitza. Koadro horri esker, irudi bat txertatu ahal izango dugu paragrafo batean, ezkerreko zein eskuineko kantoian. Eta bestelako aukera batzuk ere izango ditugu; esaterako, ertzak, marjinak...
3. "Itsatsi testu laua" eta "Itsatsi Wordetik". Kanpoko dokumentu batetik testu bat kopiatzean eta eGelako edizio-eremu batean itsastean, beste aplikazio batzuetako kodeak txertatzen ari gara, eta ustekabeko emaitzak eman ditzake. Ohikoa da eduki hori txertatzean zuzen bistaratzea, baina nabigatzailez edo/eta ordenagailuz aldatzean, nahi ez diren elementuak azaltzea. Sarri askotan gertatzen da, halaber, kode horrek eGelak erakutsitako orriaren kodearen egitura hausten duela, eta, esaterako, etiketa bateko edo orri bateko edizio-aukerak desagerrarazten dituela. Horregatik, testu-zatia web-orri batetik datorrenean, komenigarria da "Itsatsi testu laua" aukera erabiltzea, eta testua aipatutako testu-prozesadoretik datorrenean, "Itsatsi Wordetik" aukera sakatzea.
4. Wiris formulen editorea. Editore birtual baten bitartez, Latex-zatiak eraikitzeko aukera ematen du. Iragazki batek sortutako formula irudikatuko duten irudi bihurtuko ditu zati horiek.



32. irudia: Irudiak txertatzeko koadroko "Itxura" erlaitza

1. Youtube bideoak argitaratu eta multimedia iragazkia egokitu. HTML kodea editatzeko botoia azaltzen da grafikoan baina, aukera hau ez da beti beharrezkoa. Berez, multimedia iragazkia aktibatua azaltzen da, bai ikastaro mailan bai baliabide edo jarduera mailan. Hau dela eta, Youtube-ko bideoetako estekak *iframe* edo *edukien baitan leiho* bezala txertatzen ditu. Ondorengo bideoan, bideo bat txertatzeko dauden aukeren laburpen txiki bat egiten da. (<https://youtu.be/G8d6itQxSkg>)

Etiketak

Etiketei esker, testu-eremu bat txertatu daiteke ikastaroaren orri nagusian. Testu-eremu aberastu bat baino ez duten edukiak dira etiketak. Horiei esker, ikastaroaren orri nagusiaren itxura eta bistaratze-antolamendua hobetu ahal izango ditugu. Alabaina, gehiegi erabiliz gero, orri nagusia gehiegi kargatu daiteke, eta horrek arazoak sor ditzake; bai edukia behar bezala ulertzeko, bai konexioak mantso doazenean, orria kargatzeko denbora gehiago behar izango dugulako.

Orriak

Orri batek eduki-zati bat jaso dezake, editorean erabilgarri dauden aukera guztiak bertan daudela: testua, irudia, bideoa, estekak, txertatutako kodea (esate baterako, Google Maps-en mapa bat edo Dailymotion edo YouTubeko bideo bat...). Fitxategi bat erabili beharrenean web-orri bat erabiltzeak dakartzan abantailak honako hauek dira:

- Gailu mugikorrek darabiltzaten erabiltzaileak errazago sartuko dira.
- Kanpoko edukiak txertatu ahal izango dira.

Moodle 2.X-en dauden orriek hauetarako aukera ematen dute:

- Ikastaroaren azalean, beronen deskribapena erakustekoa.
- Deskribapen hori berori orriaren testu-gorputzaren hasieran txertatzekoa.

Liburuak

Modulu honekin, orri konplexuagoen egiturak sortu daitezke, hainbat sakontasun mailarekin eta edukien zuhaitz espezifiko batekin. Liburu baten edukiak inportatu zein esportatu ahal izango dira; ondorioz, eduki-unitate horiek ikastaro batetik bestera lekualdatu ahal izango dira. Gainera, liburuaren orri guztiak PDF batean inprimatu daitezke.